# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Oposaketak eta lehiaketak

### HEZKUNTZA SAILA

### 1478

*AGINDUA, 2020ko martxoaren 4koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren mendeko ikastetxeetan izaera bereziko irakasle-lanpostuak betetzeko lekualdatze-lehiaketa.*

Honako hauek aintzat hartuta: Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateaz kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legearen 4.1.C) eta 23. artikuluak; 2019-2020 ikasturterako maisu-maistrentzat eta gainerako irakasle-kidegoentzat erreserbatutako lanpostuen zerrendak; eta lanpostu hutsak daudela Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxeetan.

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

1.– Lekualdatze-lehiaketa iragartzea unibertsitateaz kanpoko irakasle-kidegoetako funtzionarioentzat, izaera bereziko irakasle-lanpostuak betetze aldera Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren mendeko ikastetxeetan.

2.– Deialdi hori arautuko duten oinarriak onartzea.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Deialdi honetan behin betiko destinoa lortzen duten parte-hartzaileek eta, era berean, Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 15eko Aginduaren bidez iragarritako lekualdatze-lehiaketan parte hartu eta behin betiko destinoa lortu dutenek –agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko unibertsitateaz kanpoko irakasle-kidegoetako funtzionarioen arteko autonomia-erkidego mailako lekualdatze-lehiaketarako deialdia egin zen (2019ko azaroaren 29ko EHAA)– bost egun naturaleko epea izango dute, deialdi honetako behin betiko adjudikazioa argitaratzen denetik aurrera, zein destino aukeratzen duten adierazteko. Ondorioz, aukeratzen ez duten destinoa baliogabetu egingo da. Aukera hori baliatzen ez bada, lanpostu berezien lekualdatze-lehiaketa honetan lortutako lanpostua hartu beharko da jabetzan.

Bi lehiaketetan irakaskuntza-kidego desberdinetako lanpostuetan parte hartu eta destinoa lortuz gero, aurreko paragrafoan adierazitako aukera egiten ez bada, zerbitzu aktiboan parte hartu den kidegoari dagokion lanpostuaz jabetu beharko da.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu

eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.–

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 4a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

# OINARRIAK

## SUMARIOA

I. KAPITULUA.– OINARRI OROKORRAK.

II. KAPITULUA. – PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK ETA IZAERA.

1. atala.– Orokorrak.

2. atala.– Maisu-maistren Kidegoa.

3. atala.– Bigarren Hezkuntzako Irakasle eta Katedradunen Kidegoak.

4. atala.– Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoa..

III. KAPITULUA.– PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK ETA DOKUMENTUAK.

IV. KAPITULUA.– MEREZIMENDUEN BAREMOA APLIKATZEA.

V. KAPITULUA.– PROZEDURAN ONARTZEARI ETA PUNTUAZIOA EMATEARI BURUZKO EBAZPENAK.

VI. KAPITULUA.– DESTINOAK ADJUDIKATZEA, DESTINOARI UKO EGITEA ETA DESTINOAZ JABETZEA.

VII. KAPITULUA.– IZAERA PERTSONALEKO DATUAK.

I. ERANSKINA.– MEREZIMENDUEN BAREMOA.

II. ERANSKINA.– IKASTETXEAK/ESPEZIALITATEAK/HIZKUNTZA/LANPOSTU-KOPURUA.

III. ERANSKINA.– BESTE BETEKIZUN BATZUK EGIAZTATZEA.

## I. KAPITULUA

## OINARRI OROKORRAK

Lehenengoa.– Deialdia.

Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateaz kanpoko irakasle-kidego hauetako karrerako funtzionarioen lanpostu berezien lekualdatze-lehiaketarako deialdia egiten da:

a) Maisu-maistrak.

b) Bigarren Hezkuntzako irakasleak.

c) Lanbide Heziketako irakasle teknikoak.

Bigarrena.– Eskaintzen diren lanpostuak.

Deialdi honen II. eranskin gisa, deialdi honetan bete beharreko izaera bereziko lanpostuak dituzten ikastetxeen zerrenda argitaratzen da, eskaintzen diren lanpostuak adierazita.

## II. KAPITULUA

## PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK ETA IZAERA

### 1. ATALA

### OROKORRAK

Hirugarrena.– Betekizunak.

1.– Kidego hauetako karrerako funtzionarioek parte hartu ahal izango dute deialdi honetan: Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistrak, Bigarren Hezkuntzako irakasleak eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoak, edozein administrazio-egoeratan daudela ere, egitekoez gabeturik daudenak izan ezik –egoera horretan jarraitzen duten bitartean–. Borondatezko eszedentzian daudenek zerbitzu aktibora itzultzeko behar diren baldintzak bete behar dituzte.

Hala ere, lehiaketa honetan ezin izango dute parte hartu aurreko bi urteetan lehiaketan lortutako izaera bereziko irakaskuntzako lanpostu bat jabetzan hartu duten funtzionarioek.

Behin betiko lehen destinoa lortu ez duten langile funtzionarioei eta aldi berean otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren babespean deitutako sarrerarako hautapen-prozedurak gainditu dituztenei dagokienez, hautatua izan zuten espezialitatean lortu beharko dute lanpostua, bere behin betiko lehen destino bezala. Ondorio horretarako, espezialitate horri dagozkion lanpostuak bakarrik eskatu ahal izango dituzte.

2.– Betekizun guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzerako bete beharko dira, eta lanpostua jabetzan hartu arte eutsi beharko zaie.

Laugarrena.– Parte-hartzearen izaera.

Parte-hartzea borondatezkoa izango da kasu guztietan.

Bosgarrena.– Hizkuntza-eskakizuna.

1.– Hurrengo apartatuan jasotako salbuespenarekin, ezinbestekoa izango da dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea edo, bestela, martxoaren 10eko 42/1998 Dekretuak eta urriaren 6ko 263/1998 Dekretuak aldatutako martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian (apirilaren 2ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria) eta Euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin baliokidetzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan –uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuak aldatua– aipatutako titulu edo hizkuntza-egiaztapenen jabe izatea.

2.– Ez da eskatzen baliokideak diren eskakizun, titulu edo akreditazioak egiaztatzeko, baldin eta egiaztatzen bada euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzen eta euskarazko tituluekin eta ziurtagiriekin egiaztatzeko salbuespenak ezartzen dituen apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren –otsailaren 26ko 28/2019 Dekretuak aldatua– 2. artikuluan aurreikusitako salbuespena dagoela egiaztatzen bada (dekretu horretan ezarritako eran).

## 2. ATALA

## MAISU-MAISTREN KIDEGOA

Seigarrena.– Maisu-maistren Kidegoko funtzionarioentzako lanpostuak eta parte-hartzeko betekizunak (II-1 eranskina).

1.– Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lanpostu bereziak: Pedagogia Terapeutikoa eta Entzumena eta Hizkuntza espezialitateak.

Lanpostu horiek eskatu ahalko du dagokion espezialitateko titulartasuna egiaztatzen duenak, kidegoan sartzeko kasuko hautapen-prozedura gainditu ondoren edo azaroaren 4ko 1594/2011 Errege Dekretuaren 4.2 artikuluan aurreikusitako bideen bitartez. Eskatu ahal izango ditu, halaber, urriaren 29ko 1364/2010 Errege Dekretuaren laugarren xedapen gehigarriaren arabera horietarako gaitua izan denak aipatu Errege Dekretua indarrean jarri aurreko araudiaren arabera, edo gaitasun hori azaroaren 4ko 1594/2011 Errege Dekretuko bigarren xedapen iragankorraren arabera aitortua duenak.

Gainera, lanpostu jakin batzuetarako, agindu honen II-1 eranskinean zehazten diren 2019-2020 ikasturteko lanpostuen zerrendan aurreikusitako beste baldintza batzuk bete beharko dira. Betekizun horiek III. eranskinean aurreikusitakoaren arabera egiaztatuko dira.

2.– Helduen Hezkuntzako lanpostu bereziak (HHE), espetxeetan.

Helduen Hezkuntza – Ingelesa lanpostu bereziak eskatu ahalko du Ingelesa espezialitatea duenak. Eskatu ahal izango du, halaber, 1364/2010 Errege Dekretuaren laugarren xedapen gehigarriaren arabera lanpostu horietarako gaitua izan dena, aipatu Errege Dekretua indarrean jarri aurreko araudiaren arabera, edo gaitasun hori azaroaren 4ko 1594/2011 Errege Dekretuko bigarren xedapen iragankorraren arabera aitortua duenak.

3.– Pedagogia Terapeutikoko espezialitateko lanpostu bereziak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen bi mailetan.

Lanpostu horiek eskatu ahal izango du Pedagogia Terapeutikoko espezialitateko titulartasuna egiaztatzen duenak eta 1364/2010 Errege Dekretuaren laugarren xedapen gehigarriaren arabera horretarako gaitua izan dena, aipatutako errege dekretua indarrean jarri aurreko araudiari jarrai-

tuz, DBHko lehen bi mailetako lanpostuetara behin betiko atxikita egoteko baldintza bete behar izan gabe.

Gainera, lanpostu jakin batzuetarako, agindu honen II-1 eranskinean zehazten diren 2019-2020 ikasturteko lanpostuen zerrendan aurreikusitako beste baldintza batzuk bete beharko dira. Betekizun horiek III. eranskinean aurreikusitakoaren arabera egiaztatuko dira.

4.– Lanpostu bereziak Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuan (UHEI).

Dagokion espezialitateko titularrak eskatu ahal izango ditu lanpostu horiek, baldin eta 2019-2020 ikasturteko lanpostuen zerrendan aurreikusitako beste baldintza batzuk betetzen baditu (agindu honen II-1 eranskinean daude zehaztuta). Betekizun horiek III. eranskinean aurreikusitakoaren arabera egiaztatuko dira.

5.– Azaroaren 4ko 1594/2011 Errege Dekretuaren 4.2 artikuluaren b) eta c) kasuetako batzuetan egoteagatik espezialitate berri bateko lanpostuak eskatu nahi dituztenek espezialitate berriaren aitorpena izan beharko dute. Horretarako, idatziz eskatu beharko dute, «espezialitateak aitortzeko eskaera» ereduaren bidez, eta lekualdatze-lehiaketa honetan eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen izan beharko dute espezialitatearen edo espezialitateen aitorpen hori.

## 3. ATALA

## BIGARREN HEZKUNTZAKO KATEDRADUN ETA IRAKASLEEN KIDEGOAK

Zazpigarrena.– Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen Kidegoko funtzionarioentzako lanpostuak eta parte hartzeko betekizunak (II-2 eranskina).

1.– Lanpostu bereziak Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuan (UHEI).

Dagokion espezialitateko titularrak eskatu ahal izango ditu lanpostu horiek, baldin eta 2019-2020 ikasturteko lanpostuen zerrendan aurreikusitako beste baldintza batzuk betetzen baditu (agindu honen II-2 eranskinean daude zehaztuta). Betekizun horiek III. eranskinean aurreikusitakoaren arabera egiaztatuko dira.

Kultura Klasikoko espezialitateko lanpostu berezien kasuan, titularrei, urriaren 6ko 1635/1995 Errege Dekretuaren hamargarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren babesean, Latin eta Greko espezialitateei dagokien irakaskuntza-eskumena ematen zaie.

Lanpostu horiek eskatu ahal izango dituzte, era berean, aipatutako bi espezialitateetako batean titularrak diren Bigarren Hezkuntzako irakasleek eta katedradunek. Lanpostuak eskuratzen dituztenek Latineko zein Grekoko espezialitateari atxikitako irakasgaiak eman beharko dituzte derrigorrean.

Arloei dagozkien lanpostuen kasuan, espezialitatearen titulartasunari dagokionez, hurrengo 2. atalean xedatutakoa beteko da.

2.– Espetxeetako Helduen Hezkuntzako lanpostu bereziak. Dagokion espezialitateko titularrak eskatu ahal izango ditu lanpostu horiek:

a) Komunikazio arloa. Ingelesa. Lanpostu horiek aukeratu ahal izango dituzte Ingelesa espezialitateko titularrak diren irakasleek.

b) Komunikazio arloa. Frantsesa. Lanpostu horiek aukeratu ahal izango dituzte Frantsesa espezialitateko titularrak diren irakasleek.

c) Komunikazio arloa. Euskara. Lanpostu horiek aukeratu ahal izango dituzte Euskara eta Euskal Literatura espezialitateko titularrak diren irakasleek.

d) Gizarte Ezagutzaren arloa. Lanpostu horiek aukeratu ahal izango dituzte Geografia eta Historia espezialitateko titularrak diren irakasleek.

e) Zientzia eta teknologiaren arloa. Lanpostu horiek aukeratu ahal izango dituzte honako espezialitate hauetako batean titularrak diren irakasleek: Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika, Matematika, Teknologia eta Informatika.

3.– Gorputz Hezkuntzako espezialitateko lanpostu bereziak Kirolene kirol-irakaskuntzako ikastetxe publikoan

Gorputz-hezkuntzako espezialitateko titularrak eskatu ahal izango ditu lanpostu horiek, baldin eta 2019-2020 ikasturteko lanpostuen zerrendan aurreikusitako beste baldintza batzuk betetzen baditu (agindu honen II-2 eranskinean daude zehaztuta). Betekizun horiek III. eranskinean aurreikusitakoaren arabera egiaztatuko dira.

## 4. ATALA

## LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN KIDEGOA

Zortzigarrena.– Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko funtzionarioentzako lanpostuak eta parte hartzeko betekizunak (II-3 eranskina).

Gizartearentzako Zerbitzuetako espezialitateko lanpostu bereziak Eibarko egoitza-zentroan: Gizartearentzako Zerbitzuetako espezialitatean titularra denak eskatu ahal izango ditu lanpostu horiek.

## III. KAPITULUA

## PARTE HARTZEKO ESKABIDEA ETA DOKUMENTUAK

Bederatzigarrena.– Eskabidea nola bete.

1.– Lekualdatze-lehiaketan parte hartzeko, irakaslegunean eskuragarri dagoen eskabide elektronikoa bete beharko da. Hara sartzeko, http://www.irakasle.eus helbidea erabiliko da, eta, ondoren, erabiltzailea eta irakasleen posta elektronikoaren (irakasle.eus) pasahitza idatziko dira, edo, hori eduki ezean, NAN zenbakia eta aipatutako gunera sartzeko pasahitza. Sartzeko pasahitza ahaztuz gero, aipatutako helbidean hori berreskuratzeko bidea aurki daiteke, «Pasahitza eskuratu (edo berreskuratu)» atalean.

Pasahitza sartu ostean, Lanpostu berezien lekualdatze-lehiaketak – Parte-hartzailearen eskabidea gunera jo behar da.

2.– Lehiakide bakoitzak eskabide bakarra egingo du, eta eskabide horretan sartuko dira lanpostu-eskaera guztiak.

3.– Eskabidea osorik bete ostean, «ontzat emanez» itxiko da, behar bezala baliozkotua eta erregistratua gera dadin. Jarraian, eskabidearen frogagiria inprimatu beharko da.

Eskabidea behar bezala ixten ez bada –oniritzia eman behar zaio–, ulertuko da eskabidea ez dela aurkeztu.

4.– Lanpostuen eskaerak zentro zehatz bati egin behar zaizkio.

Kontuan hartuta lanpostu-eskaera bakoitza ikastetxe, espezialitate, hizkuntza-eskakizun eta ibiltaritza (maisu-maistren kidegorako) aukeren batura/konbinazioaren emaitza dela, eskaerak jarraian adierazten den moduan egin beharko dira:

– Zentro berean lanpostu bat espezialitate batean baino gehiagotan eskatzen bada, beharrezkoa da zentroa errepikatzea eskatzen den espezialitate bakoitzeko, espezialitate bakoitzeko lanpostuaren kodifikazioa ezberdina baita.

– Ibiltaritza duten lanpostuak eskatzen dituzten maisu-maistren kasuan, «BAI» adierazi beharko da «ibiltaritza» apartatuan.

– Zentro berean lanpostu jakin bat eskatzen bada «ibiltaritza» modalitatean nahiz «ibiltaritzarik ez» modalitatean, zentroa edo herria, espezialitatea eta hizkuntza-eskakizuna errepikatu beharko dira eta «ibiltaritza» apartatuan adierazi «BAI» «ibiltaritza» modalitaterako eta «EZ» «ibiltaritzarik ez» modalitaterako.

5.– Edonola ere, zehazki parte-hartzaileek adierazitako kodeei dagozkien lanpostuak eskatu direla hartuko da kontuan. Eskabideetako kodeak ez badira existitzen edo parte-hartzaileak eska ditzakeen lanpostuekin bat ez badatoz, baliogabetu egingo dira. Aurreko arrazoiengatik eskaera guztiak baliogabetuko balira, lehiakidea destinoen adjudikaziotik baztertuko litzateke.

6.– «Adingabearen babesa» deritzon apartatua bete beharko dute eskaeran lehiakideek, egiaztatzeko epai irmoaren bidez zigorrik jaso ez dutela delitu hauetakoren bategatik: sexu-askatasun eta -osotasunaren aurkako delituak –sexu-erasoa eta -abusua, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa, sexu-esplotazioa eta adingabeak galbidean jartzea– eta gizakien salerosketagatiko delituak. Apartatu hori betetzen duenean, izangaiak adieraziko du ea baimena ematen dion Hezkuntza Sailari, hautatua izanez gero, 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikuluan adierazitako ziurtagiria eskuratzeko izangaiaren izenean. Baimenik ematen ez badio eta adjudikazioduna bada, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, delitu horiengatik zigorrik jaso ez duela egiaztatzen duena.

Dena den, baimena lehenago eman dutenei ez zaie apartatu hau eskaeran erakutsiko.

Hamargarrena.– Lehiaketara aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Lehiakideak «Merezimenduak alegatzeko eta egiaztatzeko orria» bete eta aurkeztu beharko du. Sailaren web-orrian eta Interneteko irakaslegunea helbidean eskuratu ahal izango da orri hori (PDF betegarria). Orri horretan, puntuak jaso ditzaketen merezimendu guztiak aipatuko ditu, bakoitzari dagokion epigrafe zehatza adierazita (merezimenduen baremoen eranskina). Horrez gain, dagokion epigrafean adierazitako egiaztagiriak erantsiko ditu, kasu hauetan izan ezik: epigrafe horrek berariaz adierazten badu merezimendua ofizioz zenbatuko dela, eta Langileen Erregistroan jasota badago; ondorio horietarako, eskatzaileak egiaztatu beharko du erregistroan jasota dagoela, 2. apartatuan adierazitakoaren arabera. Merezimendua Langileen Erregistroan jasota ez badago, aipatutako orrian alegatu beharko du, eta merezimendu hori egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu.

2020-2021 ikasturterako irakaskuntza-plaza arrunten lekualdatze-lehiaketan ere parte hartu badu, ez da beharrezkoa izango lehiaketa horretan aurkeztutako merezimendu komunei buruzko dokumentazioa aurkeztea (deialdi honetako I. eranskineko 3, 4, 5.1, 5.2, 5.3, 6.1, 6.2, 6.3 eta 6.4 atalak), baina «alegazioaren orrian» adierazi beharko du.

2.– Langileen Erregistroan dagoen informazioa kontsultatzeko, honako helbide honetara jo beharko da: www.irakasle.eus (sartu erabiltzailea eta pasahitza) – Espediente pertsonala. Eta ondoren, honako apartatu hauek kontsultatu ahalko dira:

Zerbitzu-orria.

Tituluak.

Ikastaroak.

Zuzendaritza-karguak.

3.– Gaztelaniaz edo euskaraz ez dauden agiri guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batera egindako itzulpen ofizial eta guzti aurkeztu beharko dira, zinpeko itzultzaileak egina edo, bestela, dagokion kontsulatu edo bulego diplomatikoak baliozkotua.

4.– Edonola ere, Administrazioak behar diren azalpen eta agiriak eskatu ahal izango dizkie lehiakideei, merezimenduei dagokienez sortutako zalantzak eta erreklamazioak ebazteko.

Eskatzaileek beren-beregi hartzen dute beren gain aurkeztutako dokumentuen egiatasunaren gaineko erantzukizuna. Agiriren bat faltsua bada edo manipulatuta badago, parte-hartzaileak deialdi honetan parte hartzeko eskubidea galduko du, bestelako erantzukizunak alde batera utzi gabe.

5.– Parte-hartzaile bakoitzak eskubidea izango du «Argitalpenei» buruzko apartatuan baremateko aurkeztu dituen jatorrizko dokumentuak berreskuratzeko. Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak zehazten duen lekuan eta epean jaso ahal izango ditu, lekualdatze-lehiaketa amaitu ondoren, betiere parte-hartzaileren batek errekurtsorik aurkezten ez badu; halakorik egingo balu, dokumentuak atxiki egin daitezke, egiaztapen edo froga gisa.

Hamaikagarrena.– Eskabideak formalizatzeko epea. Eskatutako betekizunak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzeko agiriak alegatzeko eta aurkezteko epea eta tokia.

1.– Eskabideak formalizatzeko eta agiriak aurkezteko epea.

Eskabideak formalizatu eta agiriak aurkezteko epea 2020ko martxoaren 12tik martxoaren 31ra bitartekoa izango da, biak barnean direla.

Eskabidea Internet bidez bete behar denez, gomendatzen da behar adina denborarekin betetzen hastea, eskatzaileak izan ditzakeen zailtasunak direla eta.

Adierazitako epe hori amaitu eta gero ez da egindako eskaeretan aldaketarik onartuko, ez eta merezimenduei buruzko dokumentaziorik ere.

Parte hartzeko betekizun guztiak, bai eta alegatutako merezimenduak ere, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den datan eduki beharko dira, eta adjudikatutako lanpostuaren jabetza hartu arte eutsi beharko zaie.

Azaroaren 4ko 1594/2011 Errege Dekretuaren 4.2 artikuluan aurreikusitako bideak erabiliz maisu-maistrek espezialitate berri bat eskuratzen badute, eta, ondorioz, horri loturiko postu bat eskatzeko aukera badute, eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehen, aintzatetsita egon behar du espezialitateak, interesdunak aldez aurretik hala eskatuta.

2.– Agiriak aurkezteko tokia:

– Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aipatutako lekuetako edozeinetan. Posta-zerbitzuko bulegoren batean aurkeztu nahi bada dokumentazioa, gutun-azal irekian egingo da, zerbitzu horretako funtzionarioak eguna eta zigilua jar ditzan eskabidean, ziurtatu aurretik.

IV. KAPITULUA

MEREZIMENDUEN BAREMOAREN APLIKAZIOA

Hamabigarrena.– Merezimenduen baremoa aplikatzeaz arduratuko diren unitate eta organoak.

1.– Balorazio Batzordeek baremazuko dituzte I. eranskinaren 3., 5.1., 5.2., 6.1 eta 6.2 ataletako merezimenduak. Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez izendatuko dira batzorde horiek, eta Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko dira: http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamentu-hezkuntza/eta www.irakasle.eus.

Balorazio Batzordeak gutxienez hiru kidek osatuko dituzte, honela:

– Pedagogia terapeutikoko eta Entzumen eta Hizkuntzako eta Eibarko egoitza-zentroko lanpostuetarako Balorazio Batzordea:

Lehendakaria: Hezkuntzako ikuskatzaile bat.

Batzordekideak:

● Pedagogia terapeutikoko espezialitateko maisu-maistren kidegoko karrerako bi funtzionario, Hezkuntza Ikuskaritzak proposatuak.

● Entzumena eta Hizkuntza espezialitateko maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionario bat, Hezkuntza Ikuskaritzak proposatua.

– Espetxeetako lanpostuetarako Balorazio Batzordea:

Lehendakaria: Hezkuntzako ikuskatzaile bat.

Batzordekideak:

● Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko karrerako bi funtzionario, lehentasunez Euskal Autonomia Erkidegoari atxikitako espetxeetan irakasle gisa aritu direnak, Ikastetxe eta Plangintzako zuzendariak proposatuta.

● Bi Batzorde hauetan, Idazkari jardungo du bokal gazteenak, Batzordeak beste irizpiderik hartzen ez badu behintzat.

– UHEIko lanpostuetarako Balorazio Batzordea:

Lehendakaria: Ikastetxe eta Plangintzako zuzendaria (edo hark eskuordetzen duena).

Batzordekideak:

● UHEIko karrerako funtzionario bat, Oinarrizko Hezkuntzako mailan lan egiten duena, Ikastetxe eta Plangintzako zuzendariak proposatuta.

● UHEIeko karrerako funtzionario bat, Batxilergoan lan egiten duena, Ikastetxe eta Plangintza zuzendariak proposatuta.

● Langileriaren Kudeaketako Zuzendaritzako teknikari bat, idazkari gisa jardungo duena.

– Kirolene KIIPko lanpostuetarako Balorazio Batzordea:

Lehendakaria: ikastetxe eta Plangintzako zuzendaria (edo hark eskuordetzen duena).

Batzordekideak:

● Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko Gorputz Hezkuntzako espezialitateko karrerako bi funtzionario, lehentasunez Kirolene KIIP-en irakasle gisa lan egin dutenak, Ikastetxe eta Plangintza zuzendariak proposatuta.

● Langileriaren Kudeaketako Zuzendaritzako teknikari bat, idazkari gisa jardungo duena.

Balorazio-batzordeek Langileriaren Kudeaketako zuzendariari eskatu ahal izango diote aholkulari gisa jarduteko adituak izenda ditzala. Aholkulari horiek hitza izango dute, baina botorik ez.

Behar bezala justifikatu ezean ez dela egokia, sexu bakoitzak gutxienez% 40ko ordezkaritza izango du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak aldatutako Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 31. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritako abstentzio- eta errekusazio-kausen mende egongo dira batzordekideak. Otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuaren 6. eta 16. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako (26ko EHAA), bidaia-gastuengatiko kalte-ordainak 16/1993 Dekretua hirugarren aldiz aldatzen duen ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuan (28ko EHAA) ezarritakoaren arabera ordainduko dira. Dekretu horrek zerbitzuagatiko kalte-ordainen zenbatekoak eguneratzen ditu.

2.– Sail honetako langileen administrazio-unitateek jarriko dute zer puntuazio dagokien lehiakideei baremoaren gainerako ataletan.

## V. KAPITULUA

## PROZEDURAN ONARTZEARI ETA PUNTUAZIOA EMATEARI BURUZKO EBAZPENAK

Hamahirugarrena.– Onartuen, baztertuen eta puntuazioaren behin-behineko ebazpena.

1.– Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzan Batzorde Baremaztaileen aktak eta langile-unitateek esleitutako puntuazioa jaso ostean (baremaztu behar dituzten merezimenduei dagokienez), ebazpena emango du Langileak Kudeatzeko zuzendariak, eta, behin-behinean, onartutako eta baztertutako parte-hartzaileen zerrendak onetsiko dira; azken kasu horretan, baztertzeko arrazoia zein den adieraziko du. Gainera, baremoko atala bakoitzean onartutako parte-hartzaileei emandako puntuazioa jakinaraziko du.

Ebazpena eta behin-behineko zerrendak interesdunei jakinarazte aldera, argitara emango dira sail honen Interneteko helbidean: www.irakasle.eus. Halaber, informazioa zabaltze aldera, Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan argitaratuko da Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen hori.

2.– Lehiakideek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte behin-behineko ebazpen horren aurka, eta, horretarako, 10 egun balioduneko epea izango dute, adierazitako Interneteko helbidean argitaratzen denetik hasita.

Hamalaugarrena.– Onartuen, baztertuen eta puntuazioaren behin betiko ebazpena.

1.– Aurkeztutako erreklamazioak aztertuta, ebazpena emango du Langileak Kudeatzeko zuzendariak, onartutako eta baztertutako parte-hartzaileen zerrendak behin betiko onesteko; azken kasu horretan, adieraziko du zein den baztertzeko arrazoia. Gainera, baremoko apartatu bakoitzean onartutako parte-hartzaileei emandako puntuazioa ere jakinaraziko du.

Ebazpena eta behin betiko zerrendak interesdunei jakinarazte aldera, argitara emango dira, sail honen Interneteko helbidean: www.irakasle.eus. Halaber, informazioa zabaltze aldera, Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan argitaratuko da Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen hori.

2.– Aipatutako behin betiko zerrenda horren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote sail honetako Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, zerrenda Interneten argitaratu eta biharamunetik hasita.

## VI. KAPITULUA

## DESTINOAK ADJUDIKATZEA, DESTINOARI UKO EGITEA ETA DESTINOAZ JABETZEA

Hamabosgarrena.– Destinoak behin-behinean adjudikatzea.

1.– Onartuen eta baztertuen behin betiko ebazpenarekin eta merezimenduen baremoan emandako puntuazioarekin batera, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen baten bidez, destinoen behin-behineko adjudikazioa onartuko da lortutako puntuazioari eta parte-hartzaileen eskaeren lehentasunei jarraituta, eta ebazpen hori, adjudikazioaren behin-behineko zerrendekin batera, sail honen www.irakasle.eus webgunean argitaratuko da, interesdunei jakinarazteko. Halaber, informazioa zabaltze aldera, Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan argitaratuko da Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen hori.

2.– Puntuazioaren guztizkoan berdinketarik gertatuz gero, honela ebatziko da, hurrenez hurren: baremoaren apartatu bakoitzeko puntuazio altuenari begiratuz, betiere apartatuek baremoan duten hurrenkera kontuan hartuz.

Hala ere berdinketak jarraitzen badu, azpiapartatuetan lortutako puntuak hartuko dira aintzat, baina, lehen bezala, baremoan agertzen diren hurrenkerari jarraituz.

Bi kasuotan, apartatu bakoitzean kontuan izango den puntuazioa ezin izango da izan baremoan apartatu bakoitzerako finkatutako puntuaziorik altuena baino handiagoa, ezta, azpiapartatuen kasuan, azpiapartatu horiei dagokien apartatuak daukan puntuaziorik altuena baino handiagoa ere. Irizpide horiek aplikatzean azpiapartatu bat edo gehiago dagokien apartatuaren puntuaziorik altuenera iristen badira, ez dira kontuan izango gainerako azpiapartatuetan izandako puntuazioak.

Beharrezkoa balitz, berdinketa apurtzeko irizpide gisa erabiliko dira kidegoan sartzeko erabili zen hautaketa-prozesuaren urtea eta aukeratua izateko lortu zen puntuazioa.

Azkenik, beharrezkoa bada, emakumeen ordezkaritza % 40koa baino txikiagoa den kidegoetan, emakumeen lehentasuna erabiliko da berdinketa hausteko irizpide gisa. Salbuespena egingo da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituenean –nolanahi ere, ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko bereizkeriarik–; kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kidea izatea.

3.– Erreklamazioak.

Lehiakideek behin-behineko adjudikazio-ebazpena dela-eta erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte, 5 egun balioduneko epean, hura sail honen Interneteko helbidean –www.irakasle.eus– argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Hamaseigarrena. – Behin-behinean adjudikatutako destinoari uko egitea.

Lehiakideek, erreklamazioak aurkezteko aurreko oinarrian finkatutako 5 egun balioduneko epean, lekualdatze-lehiaketan parte hartzeari uko egin ahal izango diote, eta uko egite horrek eskabidean egin dituzten eskaera guztietan eragina duela ulertuko da.

Horren ondorioetarako, kontuan izan behar da behin-behineko ebazpenean destinorik ez lortzeak ez duela adierazi nahi behin betiko ebazpenean lortuko ez denik.

Hamazazpigarrena.– Destinoak behin betiko adjudikatzea.

1.– Erreklamazioak aztertuta eta, hala badagokio, aurreko oinarrian aurreikusitako uko egiteak onartu eta gero, destinoen behin betiko adjudikazioa onartzen duen agindua emango du Hezkuntzako sailburuak. Agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta, aginduan, lehiaketako destinoen behin betiko zerrendak non argitaratuko diren jakinaraziko da.

2.– Hainbat espezialitatetako lanpostuetan lehiatuta ere, kidego berean, destino bakar bat lortuko da.

3.– Agindu horren aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, dagokion salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hamazortzigarrena.– Behin betiko adjudikatutako destinoari ezin uko egitea.

Lehiaketaren behin betiko ebazpenean adjudikatutako destinoei ezin izango zaie uko egin.

Halere, irakasle kidego batean baino gehiagotan edo lekualdatze-lehiaketen deialdi batean baino gehiagotan aldi berean parte hartzen bada, agindu honen xedapen gehigarriak adierazten duena bete beharko da. Eskaerarik izan ez duten lanpostuak hustzat joko dira, eta hezkuntza-administrazioak erabakitako araudiari jarraituz beteko dira.

Hemeretzigarrena.– Zerbitzu aktibora berriz sartzen direnek aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eszedentzia aldian egon eta gero lehiaketaren ondorioz jarduneko zerbitzura itzultzen diren irakasleek honako agiri hauek aurkeztuko dituzte dagokien Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan:

a) Eszedentziarako aginduaren kopia.

b) Medikuaren ziurtagiri ofiziala, irakaskuntzan aritzeko gaixotasunik edo beste muga fisiko nahiz psikikorik ez duela adierazten duena.

c) Zinpeko deklarazioa edo hitzematea, diziplina-espediente bidez Estatuko Administrazioaren, toki administrazioaren edo autonomia-erkidegoren bateko administrazioaren kidego edo eskala batetik ere kanporatua izan ez dela egiaztatzeko eta, era berean, funtzio publikoak betetzeko gaitasuna kendu ez diotela egiaztatzeko.

Hogeigarrena.– Lanpostuaz jabetzea.

Destino berriak 2020ko irailaren 1ean hartuko dira jabetzan.

## VII. KAPITULUA

## IZAERA PERTSONALEKO DATUAK

Hogeita batgarrena.– Izaera pertsonaleko datuen tratamendua.

Parte-hartzaileek aurkeztutako datuak dagokien prozeduran edo jarduketan aurreikusitako xedeetarako baino ez dira erabiliko.

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (2018ko abenduaren 6ko BOE, 294. zk.) xedatutakoaren arabera arautuko dira datuak tratatzea, hirugarrenei lagatzea eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak.

Aipatutako lege organikoaren eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen aurreikuspenetara egokitu beharko dira fitxategi honen erabilera eta funtzionamendua.

I. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA

Eskatutako lanpostu berezirako betekizuntzat eskatzen diren esperientzia, prestakuntza edo titulazioak ez dira baloratuko.

Parte-hartzaileek egiaztatutako merezimenduak beteta edo aitortuta eduki behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean. Beraz, hura amaitu arte hobetutako eta egiaztatutako merezimenduak baino ez dira baloratuko.

| MEREZIMENDUAK | BALORAZIOA | EGIAZTAGIRIAK |
|---|---|---|
| 1.– Lortu nahi den lanpostuaren ezaugarri berberak dituzten irakaskuntzako lanpostu berezietan karrerako funtzionario gisa duen esperientzia, lehenengo xedapen osagarrian ageri den sailkapenaren arabera:<br><br>1., 2. eta 3. urtea:<br><br>4. urtea eta hurrengoa:<br><br>Urte-zatiak honela zenbatuko dira:<br>– 6 hilabete edo gehiago, urte osoa balitz bezala.<br>– 6 hilabete baino gutxiago, ez da zenbatzen. | Urteko 4 puntu<br><br>Urteko 6 puntu | – Dagokion hezkuntza-administrazioko organo eskudunaren zerbitzu-orria edo ziurtagiria, zeinaren bidez egiaztatuko baita plazak, lanpostuak edo zentroak kalifikazio hori duela. Horrez gain, benetan eman diren zerbitzuen hasiera-data eta amaiera-data ere jaso beharko ditu agiri horrek.<br>Halere, zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren mendeko langileek eman badituzte, ikastetxeko zuzendaritzaren ziurtagiri baten bidez egiaztatuko da, hezkuntzako ikuskaritzaren oniritziarekin, aurreko paragrafoan egiaztatzen duena. |
| **2.**– Antzinatasuna kidegoan: Lanpostu hutsaren kidegoan karrerako funtzionario gisa zerbitzu aktiboan eginiko urte bakoitzeko.<br><br>Urte-zatiak honela zenbatuko dira:<br>– 6 hilabete edo gehiago, urte osoa balitz bezala.<br>– 6 hilabete baino gutxiago, ez da zenbatzen. | Urteko 2 puntu | – Hezkuntza-administrazio eskudunak emandako zerbitzu-orria edo administrazio-tituluaren edo karrerako funtzionario izendatu zutenetik izandako jabetza eta kargu-uzteen izapideen egiaztagiria edo, kasua bada, Langileen Erregistroan izen-ematearen agiriei dagozkienak.<br>Ofizioz zenbatuko da izandako antzinatasuna Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailean |
| **3.– Merezimendu akademikoak.** | **10 puntu, gehienez ere** | |
| Titulu hauek bakarrik hartuko dira kontuan:<br>– Espainiako Estatuan balio ofiziala dutenak<br>– Lortu nahi den lanpostuaren eginkizunekin zerikusia dutenak eta, beraz, hura betetzeko erabilgarriak direnak (hizkuntzei buruzkoak izan ezik, horiek beti baloratuko baitira)..<br><br>(Ikus bigarren xedapen osagarria) | | |
| **3.1.–** Doktoregoa, graduondokoak eta aparteko sariak:<br><br>**3.1.1.–** Doktore-titulua izateagatik: | 5,0000 puntu | Tituluaren kopia edo tituluaren emate-eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiria edo titulazioaren ziurtagiri osagarria, hala badagokio, 1988ko uztailaren 8ko Aginduan (13ko BOE) edo 2007ko abuztuaren 13ko Aginduan (21eko BOE) edo unibertsitate-titulu ofizialak emateari buruzko abuztuaren 5eko 1002/2010 Errege Dekretuan (abuztuaren 6ko BOE) aurreikusitakoaren arabera.<br><br>** Ofizioz zenbatuko da Doktore-titulua (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badago). |

| MEREZIMENDUAK | BALORAZIOA | EGIAZTAGIRIAK |
|---|---|---|
| **3.1.2**.– Irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko eskatutakoa ez den eta lortzeko gutxienez 60 kreditu eskatzen dituen Masterraren unibertsitate-titulu ofizialagatik: | 3,0000 puntu | Tituluaren kopia edo tituluaren emate-eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiria edo titulazioaren ziurtagiri osagarria, hala badagokio, 1988ko uztailaren 8ko Aginduan (13ko BOE) edo 2007ko abuztuaren 13ko Aginduan (21eko BOE) edo unibertsitate-titulu ofizialak emateari buruzko abuztuaren 5eko 1002/2010 Errege Dekretuan (abuztuaren 6ko BOE) aurreikusitakoaren arabera.<br><br>** Ofizioz zenbatuko da Doktore-titulua (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badago). |
| **3.1.3.–** Ikertzeko nahikotasunagatik edo ikasketa aurreratuak egiaztatzen dituen ziurtagiri-diplomagatik. Merezimendu hori ez da baloratuko Doktore titulua alegatzen bada: | 2,0000 puntu | Dagokion ziurtagiri-diplomaren kopia. |
| **3.1.4.–** Doktorego, lizentziatura edo graduan aparteko sariak lortu izanagatik edo, Musika Kontserbatorio Nagusiek emandako titulazioen kasuan, goi-mailan ohorezko aipamena lortu izanagatik: | 1,0000 puntu | Hori egiaztatuko duen agiriaren kopia. |
| **3.2.–** Unibertsitateko beste titulazio batzuk:<br><br>Izaera ofizialeko unibertsitate-titulazioak, lehiaketan parte hartzeko aukeratutako kidegoan sartzeko oro har baldintza gisa aurkeztu ez badira, honela baloratuko dira: | | |
| **3.2.1.–** Gradu-titulazioak:<br><br>Graduko unibertsitate-titulu ofizialagatik edo baliokideagatik: | 5,0000 puntu | Tituluaren kopia edo tituluaren emate-eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiria edo titulazioaren ziurtagiri osagarria, hala badagokio, 1988ko uztailaren 8ko Aginduan (13ko BOE) edo 2007ko abuztuaren 13ko Aginduan (21eko BOE) edo Unibertsitate-titulu ofizialak emateari buruzko abuztuaren 5eko 1002/2010 Errege Dekretuan (abuztuaren 6ko BOE) aurreikusitakoaren arabera.<br>** Ofizioz zenbatuko dira ziurtagiriak/tituluak (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude). |
| **3.2.2.–** Lehen zikloko titulazioak:<br><br>Diplomatura, ingeniaritza tekniko, arkitektura tekniko edo legez horien baliokidetzat jotako bigarren edo gainerako tituluengatik eta lizentziatura, arkitektura edo ingeniaritzaren baten lehen zikloari dagozkion ikasketengatik:<br><br>A2 azpitaldeko irakasle funtzionarioen kasuan, ez da apartatu honetarako baloratuko, inola ere ez, lehen titulua edo izaera horrekin aurkez daitekeen beste edozein ikasketa. | 3,0000 puntu | Lortutako titulu guztien kopia edo tituluaren emate-eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria, 1988ko uztailaren 8ko Aginduan (13ko BOE) xedatutakoaren arabera.<br>Lizentziatura, arkitektura edo ingeniaritzaren lehen zikloari dagozkion ikasketen balorazioa egiteko, aipatu titulu edo zikloak lortzeko behar diren irakasgai edo kreditu guztiak gainditu direla berariaz adieraziko duen egiaztagiria aurkeztu beharko da.<br>Ondorioz, lizentziatura, ingeniaritza edo |

| MEREZIMENDUAK | BALORAZIOA | EGIAZTAGIRIAK |
|---|---|---|
| A1 azpitaldeko irakasle funtzionarioen kasuan, ez dira apartatu honetarako baloratuko, inola ere ez, titulua edo izaera horretako ikasketak, baldin eta aurkeztutako lizentziatura, ingeniaritza edo arkitekturaren lehen titulua lortzeko gainditu behar izan badira. | | arkitektura titulua besterik ez aurkezteak 1. zikloko tituluari dagozkion puntuak ez onartzea ekarriko du.<br><br>** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko langile-erregistroan jasotako diplomaturak, ingeniaritza teknikoak eta arkitektura teknikoak, A1 azpitaldeko irakasle funtzionarioek lizentziadunaren, ingeniariaren edo arkitektoaren lehen titulua lortzeko gainditu behar izan direnean izan ezik. |
| **3.2.3.–** Bigarren zikloko titulazioak:<br><br>Lizentziaturetako, ingeniaritzetako edo arkitekturetako bigarren zikloko ikasketengatik, edo legez baliokide deklaratutako beste titulu baliokide batzuengatik:<br><br>A1 azpitaldeko irakasle funtzionarioen kasuan, ez dira apartatu honetarako baloratuko, inola ere ez, izaera horretako ikasketak, baldin aurkeztutako lizentziatura, ingeniaritza edo arkitekturaren lehen titulua lortzeko gainditu behar izan badira (lehen zikloa, bigarren zikloa, edo, hala badagokio, irakaskuntza osagarriak).<br><br>Bigarren zikloa soilik duten titulazioak eta, ondorio guztietarako, Lizentziaturaren unibertsitate-tituluarekiko baliokide gisa onartutako tituluak bigarren ziklo gisa soilik baloratuko dira. | 3,0000 puntu | Lortutako titulu guztien kopia edo tituluaren emate-eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria, 1988ko uztailaren 8ko Aginduan (13ko BOE) xedatutakoaren arabera.<br>** Ofizioz zenbatuko dira lizentziaturak, ingeniaritzak eta arkitekturak (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude). |
| **3.3.–** Araubide Bereziko Irakaskuntzen eta Lanbide Heziketaren titulazioak:<br><br>Hizkuntza Eskola Ofizialek, Musika eta Dantza Kontserbatorio Profesionalek eta Goi Mailakoek eta Arte Eskolek ematen dituzten Araubide Bereziko irakaskuntzen titulazioak, bai eta Lanbide Heziketarenak ere, irakaskuntzako funtzio publikora sartzeko baldintza gisa eskatu ez badira edo alegatutako titulua eskuratzeko beharrezkoak izan ez badira, honela baloratuko dira:<br><br>a) Europako Kontseiluko C2 mailaren ziurtagiri bakoitzeko:<br><br>b) Europako Kontseiluko C1 mailaren ziurtagiri bakoitzeko:<br><br>c) Europako Kontseiluko B2 mailaren ziurtagiri bakoitzeko:<br><br>d) Europako Kontseiluko B1 mailaren ziurtagiri bakoitzeko:<br><br>Parte-hartzaileak hizkuntza beraren hainbat titulu edo ziurtagiri aurkezten baditu, maila altuena duena baino ez da kontuan hartuko. | 4,0000 puntu<br><br>3,0000 puntu<br><br>2,0000 puntu<br><br>1,0000 puntu | Hizkuntza Eskola Ofizialen ziurtagiriak eta Musika edo Dantza Titulu Profesionalak baloratzeko:<br><br>Ziurtagiriaren/Tituluaren fotokopia edo, hala badagokio, titulu hori igorrita dagoela ziurtatzen duen egiaztagiria edo berori lortzeko beharreko ikasketa guztiak gainditu direla ziurtatzen duen egiaztagiria.<br><br>** Ofizioz zenbatuko dira Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako ziurtagiriak/tituluak, Euskal Autonomia Erkidegokoak zein beste autonomia-erkidego batzuetakoak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude. |

<table>
<tr><th>MEREZIMENDUAK</th><th>BALORAZIOA</th><th>EGIAZTAGIRIAK</th></tr>
<tr><td>e) Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikari titulu, goi-mailako kirol teknikari titulu edo Lanbide Heziketako goi-mailako teknikari edo horren titulu baliokide bakoitzeko:<br><br>f) Musika- edo dantza-titulu profesional bakoitzeko:</td><td>2,0000 puntu<br><br>1,5000 puntu</td><td>e) apartatuko titulazioak baloratzeko, tituluaren fotokopia edo titulu hori lortzeko beharrezko kreditu edo irakasgai guztiak gainditu direla espresuki adierazten duen ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dira.</td></tr>
